

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Mikel Basabe Kortabarria Aralar taldeko legebiltzarkideak**, indarrean den Erregelamenduaren babesean, hurrengo **INTERPELAZIOA** egiten dio Patxi Lopez lehendakariari, “Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek erkidegoko administrazioarekiko harremanetan euskara askatasunean erabiltzeko duten aukerari buruz”, Kontroleko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

### **ZIOA:**

Arartekoak 2010eko txostenean jaso duenez:

“**V. Ondorioak. V.1.** Arlo honetan izapidetu diren kexetako gehienak, aurten ere herritarrek administrazioarekin bi hizkuntza ofizialetako batean harremana izateko eskubidea gauzatzeko dituzten eragozpenei izan dira. Arazo hau betidanik gertatu den hiru eremuetan izan da aurten ere nabarien: Justiziaren Administrazioan, Barne Arloan eta Osasunean.

Administrazioak gertatutakoa azaltzeko eman dizkigun erantzunak ere ez dira askorik aldatu: oraindik ere azaltzen digute eskubide hau modu mailakatuan aplikatu behar dela. Horregatik, eskubide hau gauzatzea, praktikan, langile elebidunak egotearen mende dago, eta beti ez daude langile elebidunak. Planteamendua zentzuzkoa izan liteke, baldin eta “modu mailakatuan aplikatzea” ez bada gauzak denboran zehar berez aldatuko direla pentsatzea. Gauzak aldatzeko, esku hartu behar da, esku hartze horrek ematen den zerbitzua praktikan hobetzen duen ebaluatu behar da, eta hala ez bada zuzendu egin behar da. Hogeita hamar urtez bi hizkuntzak ofizialak izan ondoren botere publikoek ez badute lortu eskubide hori jarduketa eremu guztietan bermatzea, gutxienez denbora horrek aldaketa galarazten duten oztopoak identifikatzeko balio behar izan du. Oztopo horiek, hain zuzen ere, langileak euskalduntzeko bitarteko material eta ekonomikoekin bakarrik dute zerikusia. Gainera, aurrerapena erreala izan dadin maila guztietan behar den borondatea ere hor dago, arduradun politikoekin hasita, baina zerbitzu publikoetako langileak eta herritarrak ahaztu gabe. Batez ere aipatu ditugun hiru eremuetan, zeintzuetan, emaitzak ikusita, oztopoak gainditzea bereziki zaila izango den:

**V.2.** Arartekoak arlo honetan egin behar duen lanaren helburua, berez, ez da euskararen erabilera areagotzea herritarren eta botere publikoen arteko harremanetan. Aitzitik, hizkuntza bataren edo bestearen aldeko aukera ahal den neurrian librea izatea lortu behar da”.

Aipua ez da harrigarria, ezen edozein herritar elebidunek badaki administrazioarekiko harremanetan hizkuntza ofiziala aukeratzeko askatasuna mugatua dela, oraindino ere.

Are harrigarriagoak egin zaizkigu uztailaren 26an, agerraldi publiko baten, Sanitate sailburu Rafael Bengoak Osakidetza lan eskaintza publiko berriaren inguruan eginiko zenbait adierazpen, hala nola, *“El euskera no es un problema, lo que se convierte en un problema para los trabajadores de Osakidetza es la velocidad a la que se quiere impulsar esa discriminación positiva”*. Abiadura. Hain justu, inondik inora ikusten ez dena.

Ez da, baina, Osakidetza hizkuntza askatasunean aukeratzea eskaintzerik ez duen zerbitzu publiko bakarra, Arartekoak ondo dioen legez. Ertzaintzarekiko harremanetan ere, ohikoa da hizkuntza ofiziala aukeraterik ez izatea, azken hauteskunde-kanpainan, eskualdean propaganda-banaketan ziharduela Aralarreko Tolosako zinegotzi Irazabalbeitia jaunari gertatu zitzaion bezala. Nahiz eta Legebiltzarrak duela urte bi onartu zuen Ertzaintzak polizia elebidun bat behintzat jartzea kaleko patruiletan, batez ere eremu elebidunetan.

Hori guztia kontraesanean nabarmenean dago Lehendakariaren “Euskara Askatasunean” konpromisoarekin, hori ere urteetan aurrera doan konpromisoa izaki.

Hori guztia dela eta, Lehendakariari hurrengo interpelazioa egiten zaio, Kontroleko plenoan erantzun dezan:

## **INTERPELAZIOA**

Azal dezala zein politika orokor eta zein neurri zehatz hartu behar dituen berak zuzentzen duen gobernuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrok 2012an, hain justu 10/82 Legeak, Euskararen erabilpena Araukatzekoak 30 urte bete behar dituen urtean, benetan izan dezagun Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio nagusiarekin hizkuntza ofiziala askatasunean aukeratzeko aukera.

**Gasteizen, 2011ko uztailaren 28an**

**Mikel Basabe Kortabarria**

**Aralar taldeko legebiltzarkidea**

